

euskararen berripapera



194

IV. Plangintzaldia, EAEko Administrazio Orokorrean euskararen erabilera finkatzea erronka

2008 eta 2012 urteen artean garatuko den egitasmoan 2.300 langile inguruk parte hartuko dute, Eusko Jaurlaritzak aurreikusi duenez. Administrazioan euskararen erabilera malgutasunez baina etengabe ezartzea da datozen urteotarako plangintzaldiaren xedea.



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeke IV. Plangintzaldia aurkeztu du. Abian jarri berri duten planaren helburu nagusia herritarren hizkuntza-aukera guztiz

errespetatuz euskararen erabilera administrazioetan bultzatzea da. Ildo horretan, ezagutzatik erabilerarako pausoak pixkanaka baina etengabe ematen joateko bideak jarriko dituzte administrazioetako langileen eskura.

IV. Plangintzaldiak ondorengo eremuei eragingo die 2008 eta 2012 urteen artean: EAEko Administrazio Orokorrean, Administrazio horren baitako erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta zuzenbide pribatuko ente publikoei.

Lan-hizkuntza bilakatzea, etorkizuneko erronka

Duela 25 urte euskarak ia ez zuen presentziarik administrazioan. Gaur egungo egoera bestelakoa da, ordea. Dena dela, euskararen ezagutza administrazioan "nahiko handia" bada ere, erabilerak "urria" izaten jarraitzen du. Hala, euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bilakatzea da IV. Plangintzaldiaren erronka. Izan ere, egun euskararen presentzia batez ere itzulpenari esker bermatzen da administrazioan (itzultzen den guztiaren % 80 baino gehiago gaztelaniatik euskarara itzultzen da). Beraz, azken urteotan euskararen ezagutza areagotzeko egindako lanari etekina ateratzeko ordua iritsi da.

Gaur egun, 6.556 langilek dihardute beharrean Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomoetan. Lan-

postuen %41 ean (2.680 lanpostu) jarduteko ezinbestekoa da euskararen ezagutza egiaztatzea. Ildo horretan, aurtun hasi eta datozen urteotarako aurreikusitako plangintzaldiak bi oinarri nagusi izango ditu: alde batez, arau legalek ezarritako derrigorotasun-indizea betetzea, eta, bestetik, euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izateko urrats eraginkorrek ematea.

2.300 langilek parte hartuko dute

IV. Plangintzaldiari dagokion erabilera-planean parte hartuko dute hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa izanda egiaztatuta duten langile guztiek, titularrak izan nahiz bitartekoak izan. Era berean, planean parte hartzeko gonbitea egingo zaie hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez izan arren egiaztatuta duten langileei eta hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa izanda dago-kiena baino bat baxuagoa egiaztatu dutenei. Hortaz, 2.300 langile inguruk parte hartuko du zuzenean erabilera-planean, inoiz baino langile gehiagok.

Asmoak errealitate bilakatzeke, Jaurlaritzak berariazko prestakuntza eskainiko die langileei. Bestalde, hainbat batzorde (Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra, Sail bakoitzeko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea eta Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea) sortu edota indarberrituko ditu plangintzaldiaren eraginkortasuna gainbegiratzeko asmoz. Planaren jarraipena urtez urte, tartean eta bukaeran egingo da.

Komunikazio-kanpaina abian

Jaurlaritzak plangintzaldia langile guztiei ezagutzera emateko komunikazio-kanpaina jarri du abian. Kanpainaren helburua Eusko Jaurlaritzako langileak euskara gero eta maizago erabiltzeko sentsibilizatzea da eta planaren berri ematea ●

Kontsumitzaileen **hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretua** abian da

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Industria Sailak jarri dute abian Dekretua. Helburua kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea da, beti ere, malgutasunez jokatuz.

Malgutasunak esan nahi du, batetik, merkataritza-establezimendu eta enpresa txikiak Dekretutik kanpora geratzen direla. Bestetik, enpresa eta establezimenduen kokaguneko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuko dela. Gainera, betebeharrak betetzeko epe ezberdinak ematen dira, urtebetetik lau urtera bitarteko epeak.

Dekretua betetzen duten entitateek Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eskuratu eta baliatu ahal izango dute. Bestalde, Dekretuak aurreikusitakoak betetzen laguntze aldera 600.000 eurotako deialdia egingo du Eusko Jaurlaritzak.

Dekretua bete beharko duten enpresa eta establezimenduak:

- Erakunde publikoak, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko araubidearen arabera ematen dituztenean.
- EAEn, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoak:
 - ✓ Komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak.
 - ✓ Bidaiarien trenbideko edo errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.
 - ✓ Bidaiarien aire-garraioko zerbitzu erregularrak ematen dituzten enpresak, eta aireportuetan errepide asistentzia-zerbitzuak ematen dituztenak.

- ✓ Energia elektriko zerbitzua ematen duten banaketa-enpresak.
- ✓ Gas naturala merkaturatzen duten enpresak.
- EAEn kokatuta dauden jendeari begirako, produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduak, baldin eta honako baldintza hauek bat betetzen badute:
 - ✓ 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea, betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu.
 - ✓ Jendeari salmentak egiteko gunearen azalera 400 metrotik gorakoa duten establezimenduak izatea, elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan edo Bilbon, Gasteizen edo Donostian kokatuta badaude.
 - ✓ Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea.
- EAEn jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeak, eta EAEn etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obren sustatzaileak.

Jesus Migel Euba, Eroskiko Harreman Instituzionaletarako arduraduna

Nola eragingo dizue dekretuak?

Idatziz, saltokietako produktuen deskripzio guztiak euskaraz jartzea falta zaigu, alegia, "Galletas María" gaztelaniazko deskripzioarekin batera euskarazkoa jartzea. Ez da erraza, gaztelaniazkoarekin ere espazio arazoak izaten ditugu eta euskarazkoarekin ez dakit nola moldatuko garen, baina modua aurkitu beharko dugu. Horrekin lotuta dagoena da bezeroari ematen diogun ordainagiria; gaztelaniaz dago. Horretarako sistema informatikoan aldaketa sakona egin behar dugu eta 200.000 edo 300.000 produktuen erreferentziak euskaratu. Hori zaila da, baina lortu egin behar dugu.

Eta ahozkoan?

Saltoki guztietan eta ordutegi guztietan bezeroarekin euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar du-

gu, baita telefonoz izaten ditugun harreman guztietan ere. Soziolinguistikoki gaztelania indar handia duen zenbait herritan ez dugu lortu, baina horretan ari gara. Langileei irakatsiz, langileak hizkuntzaren arabera postu baterako edo besterako kontratatuz eta lanorduen txandak koordinatuz, bezeroak edozein ordutan euskaraz egingo dion norbait izatea lortu behar dugu.

Dekretua egokia dela uste al duzue?

Gutziz ados gaude Dekretuarekin. Gure enpresak gizartearentzat egiten du lan, bezeroarentzat. Bezeroaren hizkuntza-eskubidea ez dago zalantzan jartzerik. Eusko Jaurlaritzak ondo landu du Dekretua, batetik, diru-laguntzak emango ditu eta bestetik, euskara sartzeari progresiboa izango da ●





David Crystal

Hizkuntza, hizkuntzak eta Internet

Internet hizkuntza guztientzako aterpetxea da, nolabait esateko, hizkuntza horietako hiztunek ondo dabilen teknologia informatikoa badute behintzat. Gero eta tresna eleanitzagoa da, eta horixe izan da ez hain aspaldi sortu zenetik izan duen aldaketarik handienetakoa, hasiera batean ingelesa besterik ez zelako erabiltzen Interneten.

Zenbait adituren arabera, komunikazio-azpiegiturak Europan, Asian, Afrikan eta Hego Ameriketara garatu ahala, ingelesak Internet osoko hizkuntza nagusia izateari utziko dio aurki. Egilea sareko eleaniztasunak etorkizun oparoa izango duelakoan dago, eta itzal handiko jende askok ere horixe bera pentsatzen du.

David Crystalek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.

Argitalpenak



Normalització i estandarització
Brauli Montoya




Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza
Iñaki Zabaleta

Azterlana

La lengua, ¿patria común? Ideas e ideologías del español
José del Valle

HPSk 13 milioi euro bideratuko ditu euskararen sustapenera

Guztira 690 egitasmo lagunduko ditu diruz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2008an. 2008ko diru-laguntzek % 60 egin dute gora, 2005ean banatutakoekiko.



Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen erabilera bultzatzen duten eragileen artean 2008an banatuko dituen diru-laguntzak eman ditu ezagutzera. Guztira, 12.965.000 euro banatuko ditu 690 egitasmoren artean, legegaldia (2005-2009) hasi zenean baino % 60 gehiago. Laguntza-sortak 494 eragileri eragingo dio.

Diru-kopuru handiena euskaraz diharduten hedabideei zuzendutakoa izango da. 5.575.000 euro bideratuko zaizkie esparru horretan lanean diharduten enpresa eta eragile sozialei (2005ean baino % 47 gehiago). Dena dela, diru-

-laguntza igoera handiena Informazio eta Komunikazio Teknologietan diharduten enpresek izango dute: 1.700.000 euro banatuko dira, 2005ean baino % 183 gehiago. Era berean, lan-munduan euskara sustatzeko euskara-planak abian jarri dituzten enpresei eskainitako diru-laguntzek ere gorakada handia izan dute aurrean. Alor horretako enprezentzat 2.690.000 euro jarri du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2005ean baino % 140 gehiago.

Euskaingintzari dagokionean ere gora egin dute diru-laguntzek; izan ere, HPSk orain hiru urte baino % 30 gehiago eskainiko die gizarte-bizitzan euskararen erabilera indartzeko abiatutako egitasmoei. Horrela, 2008rako aurreikusitako laguntza 1.300.000 eurokoa izango da. Azkenik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian duten udalei zuzendutako diru-laguntza 1.700.000 eurokoa izango da, 2005ean baino % 6,25 gehiago.

Aurkeztu berri diren diru-laguntzen bitartez, Jauriaritzak eragileak animatu nahi ditu euskararen normalizazioan beren ekarpena egiten indar berriz jarrai dezaten. Era berean, erakunde publiko eta eragile pribatuen arteko elkarlana eta osagarritasuna sustatu nahi dira ●



Pixkabatesmucho, eta goazen dantzara



Ukan abestiaren aurkezpena.

HPSk udako txanpari heldu dio. Ukan Records-en eskutik, *Ukan* abestia eta bideoklipa aurkeztu ditu, herritar guztiak, euskaraz gutxi edo asko jakin, euskarara erakarri nahian. "Pixka bat es mucho" lelopean, euskararen erabilera sustatzea helburu duen abestia kalean da jada. Izan ere, herritarren esku dago euskaraz egitea, ez dakitenek zertxobait ikasiz eta dakitenek erabiliz.

Naikere, Mikel eta Iñigo dira Pixkabatesmucho taldeko kideak. Haien grabatutako bideoklipa dagoeneko ikusgai dago www.pixkabatesmucho.com web gunean. Jadanik 50.000tik gora dira Interneten izandako sarrerak, bideoklipa ikusi edo deskargatzeko. Dena dela, herritar guztiak gonbidatuta daude abestiaren bertsoak egitera.

HPSk 2006an aurkeztu zuen Ukan birusa. Birus osasungarri horrek hainbat euskal herritar ezagun kutsatu zituen eleaniztasunaren eta bizikidetzaren aldeko mezua zabalduz. 2007an, Ukan kanpainari beste lelo bat atxiki zitzaion: "Pixka bat es mucho". Leloa ez da agindua, bakoitzak dakien neurrian euskara erabiltzeko gonbite goxoa baizik ●

Microsoft Office 2007 eta Windows Vista euskaraz doan

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskararen presentzia bermatzeko emandako urratsak gero eta ugariagoak dira. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak eta Microsoft enpresak *IKT tresna berriak euskaraz, ekoizpena hobetzeko* ekimena aurkeztu zuten. Hain zuzen ere, honako bi produktu hauen interfazeak eskura daitezke euskaraz: Windows Vista sistema eragilea eta Microsoft Office 2007 bulegotika-suitea.

Ekimenaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Microsoft-ek indarrak batu dituzte teknologia berrietan euskararen zabalkundea eta erabilera sustatzeko. Saiakera horretan bidelagun izan dituzte alorrean lider diren Dell, Inves eta HP konpainia fabrikatzaileak. Horri esker, Windows Vista nahiz Office 2007ko interfazeak belaualdi berriko euren ordenagailuetan aurreinstalatuak eskainiko dituzte.

Hala, Microsoft Office 2007 eta Windows Vista produktuen interfazeak euskaraz doan eskuratzeko aukera eskaintzen du www.microsoft.es/eu web guneak. Era berean, euskarazko interfazeen deskarga sustatzea helburu duen "Klik egin euskarari" kanpaina egiten ari da Microsoft udan. Egitasmoaren helburua herritarrek euskarazko interfazeen ahalik eta deskarga-eta instalazio-kopuru handiena egitea da. Euren inguruan deskargatze gehien "sortzea" egiten dutenek teknologia munduarekin zerikusia duten sariak eskuratzeko dituzte ●

Malraux eta Lowry, Literatura Unibertsala bilduman

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak EIZIErekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) elkarlanean bideratutako *Literatura Unibertsala* bildumako bi lan berri kaleratu dituzte. Karlos Zabalak itzultitako Andre Malraux-en *Esperantza* (136. zenbakia) eta Karlos del Olmok euskaratutako Malcolm Lowry-ren *Sumendiaren azpian* (137. zenbakia). Itzulpenak Elkar eta Alberdania argitaletxeek plazaratu dituzte, hurrenez hurren.



Esperantza eta Sumendiaren azpian.

Bi lanok garai berean idatzitakoak dira: 1936 eta 1937 urteen artean. Andre Malrauxen *Esperantza* eleberriak Espainiako gerra zibilaren inguruko istorioa kontatzen du. Bestalde, Malcolm Lowryren *Sumendiaren azpian* nobelak alkoholarekin arazoak dituen pertsona baten egunerokotasuna islatzen du ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza / Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berrirapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

